

Ebazpena: R49 2022

Espedientea: 5/2014

Gasteizen, 2022ko irailaren 13an.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean aurreikusitako Arbitraje Batzordea osatzen duten Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese batzordekideek erabaki hau hartu dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean GFAk) Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren (aurrerantzean ZAEA) aurrean aurkeztutako gatazkari buruzkoa, GTG hornitzaileak PLCSLri (lehen, VCSL) jasanarazitako 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko eskumenari dagokionez. Gatazka hori 5/2014 espediente-zenbakiarekin izapidetzen ari da Arbitraje Batzorde honetan.

AURREKARIAK

- 1.- PLCSL merkataritza-sozietateak Gipuzkoan du zerga-egoitza, eta 2009ko ekitaldian gehienez 7 milioi euroko eragiketa-bolumena izan zuen.
- 2.- PLCSLk 2010eko ekitaldiko BEZaren aitorten-likidazioak aurkeztu zituen GFAn, eta GTG hornitzailearekin egindako barne-eragiketengatik jasandako kuotak jaso zituen.

3.- 2011ko abuztuaren 22ko Erabakiaren bidez, GTGk jasanarazitako BEZaren kuoten kengarritasuna ez onartzea erabaki zuen GTGk ez zuelako zergaren aplikazio-eremuan jardun PLCSLrekin egindako eragiketetan zuzenean esku hartu duen establezimendu iraunkor baten bidez.

4.- 2011ko irailaren 27an, PLCSLk jasandako eta GTGk jasanarazitako BEZaren kuotengatik bidegabeki jasotako diru-sarrerak itzultzeko eskatu zion ZAEARI, bai eta GFARI transferitzeko ere. Eskaera hori ez zen onartu 2013ko uztailaren 3ko lau erabakiren bidez.

5.- 2013ko abenduaren 10ean, GFAk inhibitzeko eskatu zion ZAEARI, eta hark erantzunik eman ez zuenez, 2014ko otsailaren 7an gatazka aurkeztu zuen Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean.

6- Gatazka prozedura arruntaren bidez izapidetu da, eta, beraz, bete egin da ZAEAK alegazioak egin eta froga eta dokumentazio egokiak aurkeztu eta proposatzeko izapidea. ZAEAK izapide hori betetzeko epea luzatzeko eskatu du, eta, azkenik, amore eman du, eta, beraz, onartu egin da GFAk eskumena duela GTGk jasanarazitako eta ZAEAn sartutako 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko, bai eta kuota horiek GFARI itzultzeko ere.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena.

Arbitraje Batzordeak du gatazka hau ebazteko eskumena, Ekonomia Itunaren 66. artikuluan xedatutakoaren arabera, Arbitraje Batzordearen eginkizunak ezartzen baititu:

a) *Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, Sozietateen gaineko Zergaren edota Balio Erantsiaren gaineko Zergaren baterako tributazioaren kasuetan.*

b) Banako zerga harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean auzirik sortuz gero, erabakitzea.

2. - Amore ematea

Interesdunik ez dagoenez, eta, bereziki, zergapekoa bera ez denez aurkeztu, ZAEAREN amore emateak –GTGk jasanarazitako eta ZAEAN sartutako 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko GFAREN eskumena onartuta, bai eta kuota horiek GFARI itzultzea onartuta ere– bi administrazioen arteko gatazka bertan behera geratzea eragiten du, eta Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean bideratzen den prozeduraren xedea gerora desagertzea eta artxibatzea eragiten du.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Gatazka artxibatzea ZAEAREN amore ematearen ondorenez prozeduraren xedea gerora desagertzearen ondorioz, GFAK GTGk jasanarazitako eta ZAEAN

sartutako 2010eko ekitaldiko BEZaren kuotak biltzeko eta kobratzeko duen eskumena onartuta, baita kuota horiek GFari itzultzea onartuta ere.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioiko Estatuko Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta PLCSLi jakinaraztea.